

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko maiatzaren 14a. IX. urtea. 2.593. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Zahar etxeetako langileek ez diote greba mugagabeari ekingo Tolosaldean

Tolosako Iurreamendin eta Villabonako Santiagon hitzarmena sinatu dute; Tolosako Uzturre zentroan ez atxikitzea erabaki dute **o3**

**Anje Duhalde**  
Abeslaria

«Euskarak ofiziala izateaz gain, herri eta gizarte hizkuntza izan beharko luke»

'Berria' egunkariaren 10. urteurrena dela eta, ostiralean, kontzertua eskainiko du Leidorren

Elkarrizketa **o2**

## Andoni Goikoetxea gazteluarra espetxeratu egin dute

'Euskal Herriak bakea behar du' lelopean manifestazioa egin dute 300 lagun inguruk, hainbat eragileren deialdiari erantzunez; konponbidea bultzatzeko konpromisoa baieztatu egin dute **o2**



Asuncion klinikako langileek elkarretaratzea egin zuten atzo klinikaren aurrean. I.TERRADILLOS

## Asuncion klinikako langileak, soldatak murriztearen aurka

2010az geroztik soldatak izoztuta ditzutela eta enpresak galerarik ez duela adierazi dute; enpresak hartu duen neurria «erabat bidegabea» dela salatu dute, eta elkarretaratzeak egingo dituzte aste osoan zehar **o3**

## Agirresarobek irabazi du Euskadikoa

Mahala TTTko Aimar Agirresarobe tolosarra da Sprint Triatloi modalitateko txapelduna **o7**



Agirresarobe eta Murua, Euskadiko txapeldun berriak. HITZA

## Abel Barriolak buruz buruko partida atzeratu du eskuko minarengatik

Olaizola II.aren aurkakoa hilaren 25ean jokatuko du; Jaunarena eta Bengoetxea, larunbatean aurkari **o7**



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **5 sarrera pare** ditu



**Anje Duhalde**  
Kontzertua

Maiatzak 17 • Ostirala  
20:30ean, Tolosako Leidorren



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

<b>LANBIDE HEZKETA</b> ATE BIKEN LANBIDEA ORRIKU PUNTUA ABERTZE	<b>SARBANDE</b> <small>Orriku</small> <b>SALDARRAK</b> <a href="http://www.saldarrak.com">www.saldarrak.com</a> 943 551 799	<b>MAIATZAK 22-23 MAYO</b> Orriku / Harro <b>17:00 - 20:00</b> <small>Orriku eta Harro</small>

**Itzea Urkizu**

Duela lau hamarkada inguru hasi zuen Anje Duhaldek (Arrangoitze, Lapurdi, 1950), musikari ibilbidea. *Berria* egunkariak, berri, lehen hamarkada beteko du datorren hilabetean, eta urteurrena ospatzeko, Leidor aretoan taularatuko da abeslari lapurtarra, «aspaldiko partez».

Errobiren lehen zuzeneko diskoak ere Tolosan grabatu zutela gogora ekarri du, baina nostalgia alde batera utzi nahi izan du, eta jendea gonbidatu du, ostiral honetako emanaldira.

**Iaz zuzeneko 'Ibilian' diskoak grabatu zenuen. Ostiralean, besteak beste, lan honek biltzen duena taularatuko duzu?**

Disko horretan dauden kantu gehienak, eta beste zer edo zer eskainiko dugu. Izan ere, aurten errepertorioko gauza batzuk aldatu ditugu, eta baliteke sekula kantatu ez ditudanak ere kantatzea. Baina oinarria diskoa izango da, bai.

**Euskal rockaren aitzindarietakoak izan zineten zu eta Mixel Ducau, Errobirekin, eta zenbait hamarkada pasa diren arren, musika munduan jarraitzen duzue. Musika egitea, eta euskaraz egitea, zaila da?**

Begiratzen zaion aldearen arabera [barreak]. Ekonomikoki ez da apusturik hoberena, baina egia esan, niretzat pribilegio moduko bat izan da. 17-18 urte nituenez geroztik, eta ia-ia gaur arte, musikaz bizi izan naiz, musika munduan. Momentu zailak izan dira, bai, eta agian izango dira, baina ez dago dudarik horretan: irautea garrantzitsua da. Errobiren fasea izan zen hasteko, eta gero Akelarrena. Horren ondoren, nire ibilbide pertsonala 1987an hasi zen, eta gaur arte irau du. Orduan, ez naiz kexatuko; nire inguruan panorama nola dagoen ikusita, nola kexatuko naiz ba ni, daukadan egoeraz? Ez da beti erraza izan, baina hain gogorra ere ez.

**Zure ibilbidean, kantuak aldarrikapenerako erabili izan dituzu. Musika bide ona al da protestak jendearengana iritsi daitezen?**

Ez dakit modu hoberena den, baina nik hori beti horrela sentitu izan dut. Beti argi utzi nahi izan dut, nire izaerak koherentzia izan behar duela, nire musikari irudia



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

**Anje Duhalde** ▶ **Musikaria**

Aldarrikapenak markatu izan du, Anje Duhalderen sormenaren zati handi bat. 'Berria' egunkariaren 10. urteurrenaren harira, euskarazko egunkari nazional bakarraren alde ariko da kantuan, Tolosan.

# «Euskarak aurrera egin duela esan dezakegu, baina kakotx artean»

rekin, edo ematen dudana irudi publikoarekin. Horrela, nire bizitzaren fase horiek guztiak islatu nahi izan ditut, nolabait, kantuen bitartez. Eta beraz, hitzak idazten dituzularik, beti aldarrikatzen duzu zerbaite. Beharbada, pertsona batzuei gehiegizkoa irudituko zaie, eta beste batzuentzat ez da nahikoa izango; beti hor izaten da paradoxa hori.

**Hainbat autoreren hitzak abestu izan dituzu, gainera, zureekin batera; garrantzia duite zure sormen lanean.**

Bai, beti argi izan dut, nire ingurua eta nire gizarte hurbila islatu nahi izan ditudala kantuen bitartez, eta beharbada hortik dator aldarriaren istorio hori. Finean, bake duin baten zale izatea beti al-

darrikatu izan dut, eta gure herriaren gorabeherak eta aldarrikapenak aurrera eramatea nire barruan dudana zerbaite da; hori kantatzea naturala egiten zait, beraz.

**Ostiralean 'Berria' ren 10. urteurrenaren harira eskainiko duzu kontzertua; hitzek ere izango dute zerikusirik, beraz. Zein garrantzia du zuretzat, euskarazko informazioa jasotzek?**

Gaur egungo munduan informazioa nonahitik hartzen dugu, eta beraz, euskarazko informazioak toki bat izatea, garrantzitsua baino are gehiago da; beharko zukeen tokia ez du hartu oraindik, eta azken finean, hori guztia hizkuntzarekin lotua da.

**Hizkuntzak gizartearen duen eragin eta presentziarekin?**

Euskararen gorabeherak aipatzen badaramatzagu jada, hainbat hamarkada, eta euskarak aurrera egin duela esan dezakegu,

baina kakotx artean; izan ere, gizarte hizkuntza moduan izan duen bilakaerarekin, ez dut uste oso harro izan beharko genuek. Euskarak Euskal Herriko hizkuntza izan beharko luke, eta hori beti helburu bezala hor gertatzen da. Hizkuntza ofiziala izateaz gain, herri hizkuntza eta gizart-

**«Euskarazko informazioak toki bat izatea, garrantzitsua baino are gehiago da»**

te hizkuntza beharko luke izan. Hori guztia lotua dago nire betiko ametsarekin-edo, eta errealitate gordin hori kantuen bitartez aipatzearekin. Eta finean, nire izaerarekin ere bai, beti izan bainaiz euskararen militante sutsua, eta luzaroan izanen bainaiz.

**Euskararen aldeko aldarriek luzaroan jarraitu behar dute beraz?**

Gure izaeraren zatirik nagusia da euskara, eta hori galtzen badugu, ez dakit zer izango ote den! Azkenaldian Irlandan egoteko aukera izan du, eta han konturatu naiz, adibidez, aldarrikapen sozial eta politikoei lortu dutela zerbaite, edo zerbaite baino gehiago: presoak askatu dituzte, eta beste hainbat gauza. Baina hango jendearekin hitz egitean konturatu naiz, hango akatsik handiena zein den: beren hizkuntza, gaelikoa, ez dute mantendu. Ez da kalekoa, eta inongoa, halako mamu bat bezalakoa da; hor dago, baina ez dago bizirik. Eta nik ez nuke hori gertatzerik nahi gure herrian.

**Kaleko hizkuntza izatearen garrantzia ari zara. Iparraldean zein leku du gauregun euskarak?**

Duela 40 bat urte inguruko egorearekin konpara daiteke, eta ikus daiteke sekula baino gehiago aipatzen dela euskara. Baina praktikatu eta hitz egin... Sozialki ez du, oraindik, bere tokia lortu. Eta are gehiago esango nuke: euskararen erabilera iparraldean, inoiz baino urriagoa da azken urteotan. Hau kontuan hartuz gero, zera pentsatzen duzu: «Zertan ibili gara hainbeste urtetan borrokan, horretara heltzeko?». Baina inoiz ez da etsi behar, eta aurrera jarraitu behar da. Nik uste dut, kontzientzia pixka bat gehiago sortu beharko genukeela; nik nire sailean, eta norberak bere sailean. Ez da erraza izango, baina, horretara heldu beharko dugu, eta horretarako, borroka eta lana egin beharko da.

**Helburu hori lortzea urruneko zerbaite da?**

Egia da, iragarpena oso ezkorra dela, eta niri batzuek askotan esan ohi didate, «hi pesimista bat haiz». Pesimista ez naiz, ni gutziz baikorra naiz berez, baina errealista ere bai, eta errealismo horretan, faktore horiek guztiak sartzen dira.

**Musikalki nazioarteko erreferenteak izan dituzu, eta gurea ekarri izan dituzu hitzen bidez edo euskal musika tradizionalaren ñabardurak gehituz. Zela ikusten duzu euskal musikari gazteen etorkizuna?**

Gomendio moduan, gazteei, egiteko eta sortzeko esango nieke, hori baita garrantzitsuena; sortzen ez bada, etorkizunik ez da. Egindako hori plazaratzeko, gero eta zailtasun gehiago dira, nola ez, garai honetan, krisi madarikatu hau gora eta behera dabilenean. Hala ere, animoak eman behar dira. Ez dakit nori entzun nion behin, artea dela krisiaren alternatibetako bat; uste dut egia dela artearena, artea beti baita gertatzen diren gauza txarrei, momenturen batean, estalki bat jartzen diona. Negarraren alternatiba hoberena irri egitea dela ere esaten dute, ezta? Horretan ari gara, eta ni ahalki eta animo gehien ematen saiatzen naiz gazteei.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## ↓ Iragarki laburrak

### LAN BILA

**Etxeko lanetarako.** Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992.

### LAN ESKAINTZA

**Begiralea.** Aisialdi taldeetako begiralea behar da, animazio lanak egiteko. Kontuan hartuko da antzerkiko kontzeptuak izateak. Kurrikuluma bidali, [onkilkon@gmail.com](mailto:onkilkon@gmail.com) helbidera.

# Asuncion klinikako langileak soldaten murrizketen aurka protesta egiten ari dira



Berdura plazan izan ziren larunbatean Asuncion-eko langileak herritarrei euren egoeraren berri ematen. iGL

Enpresak galerarik ez duela adierazi dute; elkarretaratzeak egingo dituzte klinikaren eta zentroen kanpoaldean

**Itzea Urkizu** Tolosa

Asuncion klinikako langileak mobilizazioetan hasi dira, «klinikako zuzendaritzak soldatak murrizteko asmoa» azaldu dielako. Pasa den astean hasi zituzten pro-

testak, eta aste honetan ere egingo dituzte, klinikaren bertan, Tolosako eta Andoaingo zentroetan, nahiz kalean.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Asuncioneekin kontzertu ekonomikoa urte urte eguneratzen duela gogorazi dute langileak, eta azaldu dutenez, enpresa kudeatzailearen urte osoko aurrekontuek galerarik ez dute izan. Halaber, 2010az geroztik, soldatak izoztuta dituztela salatu dute, eta «behin eta berriro» ukatu dietela hitzarmen kolektiboa

sinatzea. Horregatik «erabat bi-degabetzat» jo dituzte soldaten murrizketak.

Hala, atzo Asuncion klinikaren sarreran elkarretaratzea egin zuten goizean eta arratsaldean. Gaur Tolosako Belateko zentroaren aurrean elkartuko dira langileak, 11:00etatik 12:00etara; bihar, Andoaingo zentroan egongo dira, 11:00etatik 12:00etara; eta etzi, Asuncion klinikaren sarreran jarriko dira langileak, 11:00etatik 11:20era, eta 16:00etatik 18:00etara.



300 lagun inguru elkartu ziren larunbateko manifestazioan. iGL

# Andoni Goikoetxea gazteluarra espeteratu dute

‘Euskal Herriak bakea behar du’ lelopean konponbiderako konpromisoa baieztatu dute hainbat eragilek

**Imanol Garcia**

Parisko Auzitegi Berezia espetera bidali du Frantziako Poliziak Guardia Zibilarekin elkarlanean atxilotu zuen Andoni Goikoetxea gazteluarra, eta berarekin batera astearte goizaldean atxilo hartu zituzten beste bost euskal herritarrek. «Terrorismo ekin-tzak prestatzea» eta «antolatutako talde armatuko kide» izatea egotzita, seirak espeteratzeko eskatu zion larunbatean Fiskaltzak Parisko Auzitegi Bereziko epailei.

Atxilotuak espeteratzeko aginduaren berri izan aurretik eta Tolosaldeko hainbat eragile-ren deialdiarekin bat eginez, 300 pertsona inguruk manifestazioa egin zuten larunbat goizean Tolosako kaleetatik, Euskal Herriak bakea behar duela aldarrikatzeko eta konponbidearen alde daudela adierazteko. Aieteko adierazpena ekarri zuten gogora, eta bertan konpromiso bat hartu zela eta hori euskal herritarren aldetik txalotua izan zela gaineratu zuten: «Geroztik konponbideari ateak zabaltzea erabaki historikoak etorri dira». Espainiako eta Frantziako gobernuek, baina, egoera politiko berrian ez dutela aurrerapausorik eman esan zuten. Hala, «oztopo izan daitezkeen jokabideak» alboratzea eskatu eta konponbidea bultzatzeko konpromisoa» baieztatu zuten.

# Tolosaldeko adinekoen zentroetan ez diote greba mugagabeari ekingo

Iurreamendin eta Villabonako Santiagon hitzarmena sinatuko dute; Uzturre zentroan ez dute grebarik egingo

**Iñigo Terradillos**

Greba mugagabeari ekingo diote gaurtik aurrera Gipuzkoako Adinekoen hainbat zentroetan. Espainiako Gobernuaren erreforma Gipuzkoako egoitzetan aplikatzeari uko egin eta hitzarmen duinak sinatzea du helburu protestak. Tolosaldeko adinekoen hiru zentro daude: Villabonako Santiago egoitza eta Tolosako Iurreamendi eta Uzturre zentroak. Bada, Iurreamendin atzo bertan aurre akordioa lortu zuten eta Villabonakoan hitzarmena sinatu zuten ez dute grebarik egingo, eta Uzturre zentroan, berri, grebari ez atxikitzea erabaki dute langileek.

Tolosako Iurreamendi egoitza udaleko langileez gain, Zu eta Biok enpresako langileek egiten dute lan. Hain zuzen ere, atzo bertan lortu zuten aurre akordioa Zu eta Biok enpresarekin, eta datozen egunetan sinatuko dute hitzarmena. Aurretik zuten enpresako hitzarmena, probintziako hitzarmena, extraestatutarioa eta Gipuzkoako Foru Aldundiak proposaturikoa hartuko litzuzke kontuan hitzarmenak.

Villabonako Santiago egoitzan, berri, pasa den urteko azaroan sinatu zuten hitzarmena, beraz, Espainiako Gobernuaren erreforma aplikatuz kanpo geratuko litzateke. Sinatu zuten hitzarmenean, baina, KPren egoera aplikatzea faltako litzaioko, eta hori aste honetan bertan sinatzea espero dutela azaldu dute ELA sindikatutik.

Tolosako Uzturre zentroan, bestealde, ez dute hitzarmenik sinatuta oraindik, eta enpresak langileei aurkeztu dien zirribor-

roa «lehen baino okerragoa» da ELAren esanetan, «Diputazioak mahai gainean jarritako proposamenetik urrun dagoelako». Enpresaren eta langileen arteko negoziazioa ere urrun ikusten du ELA. Dena den, atzo langileek eginiko batzarrean greba mugagabeari ez atxikitzea erabaki zuten.

Uztailaren 7rako sinatzen ez badira, hitzarmenik ez duten zentroetan Espainiako Gobernuaren erreforma aplikatuko litzateke. Hitzarmen horiek lortzeko helburuarekin hasi dira grebarekin Gipuzkoako hainbat zentroetan, eta mobilizazioak ere aurreikusi dituzte. Atzo Donostiako Bulevarrean kanpalekua jarri zuten, esaterako. Bestealde, Eusko Jaurlaritzak ezarritako gutxieneko zerbitzuen arabera, greba deialdia mantentzen den egoitzetan pertsonalaren erdia lanean izango da, eta hainbat ordutan langileen % 60a.

• [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

## Irudia ◊ Zizurkil



# BORROKAN SEGITZEN DUTE

Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko beharginen aldeko manifestazioan 300 pertsona inguru bildu ziren larunbatean Tolosan. «Bizirik gaude! Borrokan jarraitzen dugu! Beste batzuek kontrakoa esan arren, edo kontrakoa nahi arren», esan dute langileek. Mobilizazioekin jarraituko dutela azaldu dute, erakunde publikoekin irtenbide bat bilatzen jarraituko dutela, eta bide juridikoa jorratuko dutela. iGL

Azoka, kirol jarduerak, ospakizunak, erakusketak, ekitaldiak, bazkariak... Denetarik izan da asteburu honetan Tolosaldeko hainbat herritan.

# Herritarrengandik sortutako lana

**Imanol Garcia Landa**

Berriak onak egin dute antolatzaileek Herrialdeko II. Azoka Bereziaren inguruan. Igaro Beldia alkateak azaldu duenez, «iaz izan zen antzoko jende kopurua izan da. Gustura gauke horrelako azoka antolatzeagatik Herrialde moduko herri batean, eta datorren urtean ere egiteko asmoa dugu». Herritarrek abereak eta artisautza jarri dute erakusgai, eta aurten herritasuna hezuzgai izan dira. Baserriko makinaria ere ikusgai izan da.

Gipuzkoas Zero Zabor taldeak antolatuta, herri herri iri dira egiten Mundumob ekitaldia, eta larunbatean Alegian egin zuten. Mundu bola erendaindarrek eman zituen, horien herrian hasi baitzen egitasmoa, eta eskutik eskura herriko plazara eraman zuten izan da. Gustura gauke horrelako azoka antolatzeagatik Herrialde moduko herri batean, eta datorren urtean ere egiteko asmoa dugu». Herritarrek abereak eta artisautza jarri dute erakusgai, eta aurten herritasuna hezuzgai izan dira. Baserriko makinaria ere ikusgai izan da.

Aro GBC taldeak partida bat jokatuko du Tolosaldeko kilometroak 2013ren alde. Berria Taldeak hamar urte bete ditu eta hainbat jardueran antolatzen ari da Euzkoal Herri osoan. Tolosan, esaterako, datorren ostirlean Leidorren Anje Duhabaren alegiarrek. Bertan, aieriazpea inkurritu ondoren, Mundumoben dantza egin zuten. Albizturko guraso elkarteak antolatuta, paella erakaldia prestatu zuten larunbatean herriko frontoan. 140 pertsona elkartuz, eta bazkaldu eta gero, musika eta ikusmina izan zituzten. Aitzoko Santillazpi guraso elkarteak antolatuta, herriko zahar, gazte nahitako umore elkarrekin Zeldibian daogen Arkaka paraje politera joan ziren igande goizean. Umeekin joetako irteera polita dela gogoratu dute. Lagun Aro GBC saskibaloi taldeko bi izar nagusi izan dira bistan Tolosaldeko Laskorain ikastolan. Bekwo eta Finley amerikarrak hain zuzen. Irailan Lagun



**Tolosa** • Berria Taldeak mahaisa jarri zuen Trianguloa plazan. ILL



**Tolosa** • Lagun Aro GBCko bi jokalarik Laskorain ikastolakoekin. HTZA



**Tolosa** • Olaizola I.a eta Martinez Irujo zaleekin elkartu dira. ILL



**Herrialde** • Hainbat abere ikusteko aukera izan da herritarrek egindako azokan. JONE ANONIMAZ



**Allegia** • Mundumob ekitaldia egin dute herritarrek. ILL



**Albiztur** • Paella erakaldia jateko 140 lagun elkartu dira frontoan. ILL



**Alkiza** • VI Frontenis Masters Txapelketako finalistak. HTZA



**Tolosa** • Birziklapen Biraren erakusketak ibiltaria, Trianguloa plazan. ILL



**Aitzo** • Santillazpi guraso elkarteak antolatuta, herritarrek bilalida egin dute. HTZA



**Tolosa** • Txolarte Egunaren ekitaldiak bat, Hirukideren frontoan. N. BAZLA

## Gipuzkoako Lokotx Biltze Txapelketa irabazi du Eneko Garmendiak

Esqualdeko lasto altxatzaileek bigarren, hirugarren eta laugarren egin dute Gipuzkoako Txapelketan

**M. Iraola**

Eneko Garmendiak Gipuzkoako Lokotx Biltze Txapelketa irabazi du. Igandean Legorretan jokatu-tako proban garaipena lortu zuen baliarraindarrak lokotx guztiak sei minutu eta 51 segundokoan bildu ondoren. Gotzon Zulaika bigarren izan zen Garmendia baino lau segundo gehiago behar izan eta gero. Jon Larrañagak osatu zuen podiuma, sei minutu eta 59 segundoko denbora eginda. Zazpi minutu eta sei segundo behar izan zituen laugarren amaitu zuen Unai Alberdik.

### Lasto altxatzean, ezin

Gipuzkoako Lasto Altxatze txapelketan ezin izan zuten garaipena lortu esqualdeko parte hartzaileek. Pello Argaia zizurkildarra bigarren izan zen 19 jasoaldirekin; Mattin de la Sotilla tolosarrak hirugarren postua lortu zuen 16 jasoaldi egin eta gero; eta Lander Otermin Munainek laugarren egin zuen 11 jasoaldirekin. Garaipena, Andoni Agirreurretak lortu zuen, 21 jasoaldi egin eta gero.



Ibartarrak larunbatean Aian irabazi eta gero. HITZA

## Ibarrako neskek Gipuzkoako txapeldun

**Mikel Iraola** Ibarra

Ibarrako neskek Gipuzkoako giza proba txapelketaren lehen edizio-ko garaileak dira larunbat gauetan Aiako probalekuan jokatu zen I. Bizi Iturri Sarria irabazi ostean.

300 pertsona inguru bildu ziren larunbatean Aiako probalekuan ikuskizunaz gozatzeko asmoz. Probaliariak ordu laurdeneko denboraz aritu ziren 550 kiloko harriarekin, eta denbora tarte horretan ibartarrek 30 plaza egin zituzten, hau da, 840 metro inguru.

Bigarren Orrio izan zen, 29 plaza, zazpi zinta eta 1,10 metro egin eta

gero. Hirugarren, berriz, Ergobia taldea sailkatu zen, 28 plaza eta 6 zintako ibilbidea burututa.

Ibarrako neskek giza probetan parte hartzen zuten lehenengo aldia zen, gehienak, soka-tira taldeko partaideak baitira. Duela hila-bete gutxi batzuk hasi ziren txapelketa hau prestatzen Garikoitz Etxeberriaren eskutik Zaldibiako taldearen aurka egitekoak ziren desafio bat bertan behera geratu ondoren. Oraindik txapelketa ofizial moduan legestatu ez badute ere, lortu dute dagoeneko lehen saria ibartarrek.

• [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

## Jon Rekondo finalean da

Joseba Otaegi, berriz, finalerdietarako sailkatu da, eta Mugertzaren aurka lehiatuko da bi aste barru

**M. Iraola**

Jon Rekondok Urrezko Aizkorako banakako txapelketako finalerako txartela lortu zuen Urduñan jokatu-tako jardunaldian nagusitu ostean.

Hainbat lan egin zituzten: lehenik, 45 ontzako enborra ahal bezain kolpe gutxiagotan moztu behar izan zuten; bigarren, 45 ontzako erlojuz kontra, eta jarraian, tamaina bereko enborra zutik jarritu. Gero, 60 ontzako ebaki behar izan zuten, eta azken lanean, bi kana-erdiko eta bi 60 ontzako.

Rekondo izan zen hobereña lehen saioan. Erasunek bezain beste kolpe behar izan zituen, 30 hain zuzen. Bigarren saioan ere, leitzarra nagusitu zen, 40 ontzako enborra 50 segundotan ebaki ondoren. Kañamaresek 52 behar izan zituen. Hirugarrenean, zutik jarritako enborra Rekondok berak moztu zuen azkarren, minutu batean.

Iraupen proban Mugertzak egin zuen denborarik hobereña, 10 minutu eta 42 segundu behar izan baitzituen. Bigarren izan zen Rekondo 11:27ko denborarekin.

Amairan, ordea, Rekondo nagusitu zen, kronometroa 16:43an geratuz. Bigarren Ugaitz Mendizabal izan zen, 41 segundo gehiagorekin. Hirugarren Juanjo Lopez izan zen, eta 19:30eko denbora egin zuen Julen Kañamaresek.

**Otaegi, finalerdietan**

Larunbat arratsaldean Diman jokatu-tako beste jardunaldian, berriz, Floren Nazabal nagusitu zen, eta Joseba Otaegik finalerdietarako txartela lortu zuen.

Kolpekako saioan Atutxa izan zen hobereña, enborra 30 kolpetan moztu ondoren. Bigarren lanean, Nazabal izan zen garaile, lana 46 segundokoan amaitu ondoren. Otaegik bat gehiago behar izan zuen. Hirugarrenean ere Etxarrikoa nagusitu zen. 49 segundo behar izan zituen. Bigarren izan zen Otaegi minutu eta bi segundorekin. Iraupen frogan, Nazabalek egin zuen lanik azkarrena, 10 minutu eta sei segundokoan. Bigarren izan zen Aitzol Atutxa, eta hirugarren Otaegia bi minutura.

Denera, Nazabal izan zen hobereña 15:07ko denborarekin. Bigarren Atutxa izan zen, eta hirugarren Otaegik zizurkildarra. Horrela, Rekondo eta Nazabal, finalean daude jada. Mugertza, Lopez, Atutxa eta Otaegik, berriz, finalerdiak jokatu beharko dituzte. Otaegik hemendik bi astera neurtu beharko du Mugertzaren aurka.

## Irudia • Amasa-Villabona



## BIZIKLETAZ GOZATUZ

Igandean, Iker Usabiaga Otaegiren omenez, Amasa-Villabonako VII. Martxa Zikloturista 412 txirindu zale bildu ziren. Dozena batek 83 kilometroko ibilbide laburra egin zuen, Villabona eta Lekunberria joan-etorria eginaz. Aldiz, gehiengoak, 122 kilometroko ibilbide luzea egitea hautatu zuten. Ondoren, hamaiketakoaz gozatu zuten parte hartzaile guztiak. JONE AMONARRIZ

## Irudia • Bidegoian



## BIDANIA-GOIAZ TXAPELDUN

Herri txikien arteko futbol txapelketa irabazi zuen Bidania-Goiazeko taldeak. Lehen finalerdian, 3 eta 1 gailendu zitzaion Errezilgo taldeari. Bigarren, ikaztegieta eta Leaburuko taldeen arteko partida hutsean amaitu zen, eta ikaztegietarrek penaltietan irabazi zuten. Finalean, Bidania-Goiazeko taldeak ikaztegietaokari irabazi zion 1-0. Hirugarren Errezilko taldea izan zen Leabururi irabazita. HITZA

# Bengoetxea, Jaunarena eta Barriola final-laurdenetan

Barriolak Olaizola II.aren aurka jokatu beharreko partida atzeratu egin da, leitzarraren lesio baten ondorioz

**Mikel Iraola** Leitza

Hiru leitzar izango dira buruz buruko txapelketako final-laurdenetan: Jon Jaunarena, Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea. Lehenengo biek garaipena eskuratu zuten asteburuan, Bengoetxea berriz, datorren astetik aurrera sartuko da lehian.

Jaunarenak Jose Javier Zabaleta hartu zuen mendean igandean Eibarko Astelena pilotalekuan jokatuako partidaren 22-12ko emaitzarekin. Leitzarra hasieratik aurreratzen zuen markagailuan, 9-3ko emaitzarekin. Erritmo bizia ezarri zuen, baina Zabaletak sakea errekupeperatu eta asko sufritu zuen Jaunarenak. Horrela, hiru tantoko aldera gerturatu zen Etxarre-reko atzelaria (11-8). Alde hori 14-11ko emaitzara bitartean mantendu zen. Hortik aurrera, Jaunarenakerakustaldia eskaini zuen, 21era segidan iritsi baitzen, norgehiagoka erabakita utzi. Azkenean, 22-12koarekin amaitu zen.

Final-laurdenetan, derbi leitzarra izango da, Oinatz Bengoetxea izango baitu arerio Jaunarenak. Partida Hendaiako pilotalekuan jokatu da, larunbatean arratsaldeko seietan. Bestalde, Abel Barriolak gogor sufritu behar izan zuen. Julen Retegi garaitzeko, 10-20 galtzen joan ondoren, zuzenean 22 tantora heldu zen, Retegik eskuneko eskuan min hartu zuela baliatuta. Partida oso pareko hasi zen. 8-7 aurreratzen Barriola, eta une horretan, atseden hartu zuen Retegik. Parekotasunak 10-9 emaitzara bitarte irauin zuen. Orduan, hiru akats jarraian egin zituen Barriolak eta, konfiantza galdu zuen.



Alegiako Herri arteko pilota taldea. HITZA

Eratsungo aurrelariak hori baliatu eta 10-20ekoa ezarri zuen markagailuan. Garaipenak berea zirudien.

Barriolari ordea, garesti atera zaio egin beharreko esfortzua, izan ere, eskuko minaren ondorioz, astebetetz atzeratu behar izan du igandean Aimar Olaizolaren aurka jokatzeko zen final-laurdenetako partida. Partida hori, maiatzaren 25ean jokatu da.

Txapelketako beste bi final-laurdenak, Mikel Beroiz eta Juan Martinez Irujo, eta Mikel Urruti-koetxea eta Mikel Idoatek jokatu dituzte.

**Herri artekoan aurretik**  
Asteburu honetan hasi da Herriarteko Pilota Txapelketa eta eskuzko modalitatean aurre hartu dute Tolosa eta Alegiako taldeek. Tolosak bi partida irabazi eta bat galdu zituen Zumarragaren aurka han bertan jokatuak neurketan.

Kadeteetan, Egiguren-Peña bikoteak 22-5 irabazi zuen; jubeniletan, Mujika-Beloki bikoteak 22-5 irabazi zuen, eta, nagusietan, Aristimuño-Errazkin bikoteak 21-22 galdu zuten. Datorren ostiralean Beotibarren jokatu da itzulera. Alegiarrek ere bi partida irabazi eta bat galdu zuten Zestoaren aurka. Kadeteetan irabazi egin zuten alegiarrek, 19-22; jubeniletan galdu 22-1, eta nagusietan irabazi 5-22. Itzulerako neurketa Alegian jokatu da asteburu honetan.

Zesta-puntako Tolosako taldea, ordea, atzetik da Zumaiaren aurka. Kadeteetan, Lekuona eta Legarrak osatutako bikoteak 30-20 galdu zuten. Jubeniletan, Ibañez eta Sukiak 35-12 galdu zuten, eta nagusietan, berriz, Lopez eta Izagirrek 16-35 irabazi zuten. Hurrengo jardunaldia, igandean jokatu da Beotibarren, 11:00etan.

## Final-laurdenak Beotibarren

I. Miguel Soroa txapelketako final laurdenen lehen jardunaldiak 200 pertsona bildu zituen Beotibar pilotalekuan. Nagusien mailan, Jaka eta Arratibel 22-14 gailendu ziren Bisintxo eta Perezen aurka. Etorkizunekoan mailan, 15-22ko emaitza izan zen Olano-Irurtega-goiena eta Labaka-Agirre bikoteen artean. Kadeteetan, berriz, Bakalko eta Urdainpilletak 22-9 irabazi zieten Garate eta Belokiri.

# Aimar Agirresarobe Euskadiko Sprint Triatloi txapeldun

Tolosarra bigarren izan da larunbateko Deba-Itziar Extreme proban Kasteleinen australiarraren atzetik

**M. Iraola** Tolosa

Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldeko Aimar Agirresarobe Sprint distantziako Euskadiko txapel-dun izendatu da, pasa den larunbatean Deba-Itziar Extreme proban bigarren sailkatu ostean.

Nick Kasteleinen izan zen garaile Debako helmugan, igerian 0,75 kilometro, bizikletan 30 kilometro eta lasterka beste 5,2 kilometroko distantzia, 1:19:56ko denboran egin eta gero. Australiarrak, lehen hamarren artean sailkatu da aurtengo Munduko Kopako bi lasterketetan, eta harengandik 50 segundora helmugaratu zuen Agirresarobe. Emakumeen mailan, berriz, Ainhoa Murua izan zen garaile.

Itsas baldintzek igeriketa saioa baldintzatu zuten, eta lasterketa buruarekiko tartea galdu zuen TTTko kideak. Bizikleta gainean, ordea, denbora hori errekupeperatu, eta korrika saioan atzean utzi

zituen aurkariak: «Korrika saioari oso fuerte ekin diot, hori izan da nire apustua. Ikusi dut tartea atera diedala atzekoei, eta azken kilometroetan pixka bat erlaxatu egin naiz. Banekien Kasteleinen ez zela arerioa eta bigarren postuaren bila joan beharko nuela».

Triatloilari gisa urte asko darabata tolosarrak, eta txapelketa irabaztea «oso sari polita» dela azpimarratu du, nahiz eta txapela bere lagun Imanoli eskaintzen dion: «Txapel hau harentzat da, badakit nonbaitetik entzungo nuela».

Hamar urtez Atletico San Sebastian taldean aritu ostean, aurtengo Tolosaldeko Triatloi Taldera itzuli da Agirresarobe. «Helburu berriak jarri dizkiot nire buruari. Entrenamenduak nire kasara prestatu eta antolatzen ditut, eta espero baino fuerteaogo nago». Hurrengo jomugak, Bilboko eta Zarauzko triatloiak izango dira.

Berarekin batera, TTTko Aitor Regillaga, Ion Artutxa, Iñigo Esnaola, Edu Gonzalez, Asier Saez, Gorka Sarasola, Aritz Iglesias eta Sonia Muñoz, eta Atletico San Sebastianeko Zalakain anaiak, Ilazki eta Egoitz arituko dira datorren larunbatean Bilbon jokatuako proban.



Agirresarobe, Debako podiumean. TOLOSAKO TRIATLOI TALDEA

## Hilberriak eta urteurrenak

**BENANTXIO IRURETA**

ZURE IZAERA APAL ETA ISILAK HUNKITU GINTUEN BIDAIA, ORAIN EZIN IRENTSI GAUDE ZUK UTZI DUZUN HUTSUNEA

KARAKORUMeko LAGUNAK

**BENANTXIO IRURETA AGIRRE**

Mendizaletasunak zor dizunagatik

Lagun Onak Mendil Bazkuna

Azpeitia, 2013ko maiatzaren 14an

**DOLOX ETXEBERRIA MURUA**

- Golan bego -

Ikasgai on bat ikus daiteke zure eskaparatean hitz goxoak nola adierazi infar polit batean.

Etxeberritar sende eta ilobak

Zaldibia, 2013ko maiatzaren 14a



19°  
10°

GOIZA EURIA  
ARRATSALDEA LANOTUTA  
BEROENA 12°  
HOTZENA 8°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalanantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# Ibarrako merkataritza identifikatzeko irudiaren lehiaketa egingo dute

Ibarrako merkataritza elkarteak eta udalak antolatuta dute; lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 14a da

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Ibarrako merkataritza elkarteak eta udalak elkarlanean Ibarrako merkataritza identifikatuko duen logotipoaren lehiaketa antolatuta dute. 18 urtetik gorako ibaritarrek hartu ahaliko dute parte, eta irabazlearentzat 500 euro eta 250 euroko balioa duen txekia iragarri dute.

Ibarrako Merkataritza Biziberritzeko Planaren barruan ateratako ondorioetako bat zen Ibarrako merkataritzari irudi berria jarztearena, «egungo logotipoa zaharkitua dagoelako». Hala, irudi berria lehiaketa bidez aukeratzera erabaki dute.

Irudi berria izango da informazioaren zabalpenean, dokumentu ofizialetan, web orrian nahiz publizitatean erabiliko dutena. Logotipoak Ibarra identifikatzen duen zerbitu izan beharko du, piperak, esaterako, edota herriaren izera identifikatu dezakeen irudiren bat.

Lanak ekainaren 14a bitarte aurkeztu ahaliko dira Ibarrako udaletxean edota Tolosaldea Garatzeneko bulegoetan. Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahaliko ditu, eta logotipoaren azalpentxoak ere erantsi



Itziar Saizar zinegotzia, Agustin Aduz merkataritza dinamizatzailea eta Antxon Urrestarazu Ibarrako merkataritza elkartearen lehendakaria. I. TERRADILLOS

## ↓ Lehiaketa

### BALDINTZAK

- **Helburua.** Ibarrako merkataritza identifikatzeko logotipo berria sortzea.
- **Edukia.** Ibarra identifikatuko duen zerbitu izan behar du.
- **Epea.** Lanak aurkezteko epea ekainaren 14a bitarte izango da.
- **Materiala.** Lanak A4 paper formatuan aurkeztu beharko dira, eta bakoitzeko 3 ale.
- **Nori zuzendua.** 18 urtetik gorako ibaritarrei.
- **Saria.** 500 euro dirutan, eta 250 euro Ibarrako Merkataritza elkarte bakoitzeko diren dendetan gastatzeko.

ahalko da. Ekainaren 21ean emango dute jakitera irabazlearen izena. Epaimahaia aukera-

tuko du jasotako lanen artean irabazlea.

Epaimahaikideak Ibarrako merkataritza elkartearen lehendakaria eta lehendakariordea, udaleko ingurumen, merkataritza eta nekazaritza zinegotzia eta teknikaria, Hauspoa kultur elkartearen lehendakaria eta Tolosaldea Garatzeneko merkataritza dinamizatzailea izango dira.

Irabazleak 500 euro jasoko ditu eskudirutan, eta 250 euroko txekia, Ibarrako merkataritza elkartearen bakoitzeko diren dendetan erabilteko.

Lehiaketaren oinarriak esku-ragarri izango dira Ibarrako ingurumen, merkataritza eta nekazaritza zerbitzuan, [www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net) web orrian, Tolosaldea Garatzeneko bulegoetan eta [ibarrakomerkataritza@gmail.com](mailto:ibarrakomerkataritza@gmail.com) helbidean.

o [ibarralde@hitza.info](mailto:ibarralde@hitza.info)

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 3. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzuki zunik.

**Mauka berria** GAURKO ESKAINTZA

**Gau bat 2 pertsonarentzako Olatzea hotelean**

**OLATZEA HOTELA**  
Errota kalea z/g  
ARBIZU 31839 - NAFARROA  
Tel.: 948-46 18 76  
info@hotelolatzea.com  
www.hotelolatzea.com

**Prezioa 60€**

**www.mauka.eu**

**berria taldea**

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIAK

- **Amasa-Villabona.** Euskal Herriko haur eta gaztetxoek kantu txapelketan izango da hilaren 25ean, Gurea antzokian. Banaka, bikotean edo taldean parte hartu daiteke, eta parte hartu nahi dutenek, gaur dute izena emateko azken eguna. 943 59 33 02 telefonora deituz edo [posta@kantuzale.net](mailto:posta@kantuzale.net) helbide elektronikora idatziz.
- **Alkiza.** Igandean, hilaren 19an, Truke Azoka egingo da, Alkizan. 10:30etik 14:30era izango da. Parte hartu nahi dutenek, izena eman beharko dute azokan mahaia jarri ahal izateko. 943 69 39 30 telefono zenbakira deituz edo [aiztondokodenborabankua@gmail.com](mailto:aiztondokodenborabankua@gmail.com) helbidera idatziz eman daiteke.
- **Berrobi.** Berrobiko kultur asteraren barruan, 17:00etan, Felix Belauzaran heritar sukaldariak plater goxoak prestatuko ditu Bide Ona elkartearen Ludo-terka zerbitzua egongo da.
- **Ibarra.** Uzturpe ikastolak elkartzasun kilometroa egingo du Ibarra. 14:30etik 16:30era burutuko dute, eta Tourette sindromea dutenak laguntzea izango du helburu. Maila guztie-

tako ikasleek Ibarrako plaza eta San Ignazio artean prestatu dute zirkuituari itzuliki emango dizkiote. Parte hartzaileek kilometro bakoitzeko dirua emango dien babesleak bilatu beharko dituzte, eta jasotako dirua Afesta Euskadiko Tourette sindromea eta bestelako trastornoen familia elkarteari bideratuko zaio.

■ **Tolosa.** Maiatza Gorria egitasmoaren barruan, 19:00etan Memoria historikoaren berreskuratzea hitzaldia izango da, Otsabi elkartearen Lau Haizetara Gogoan kolektiboaren eskutik izango da Sanblaspioko Gazte Asanbladaren antolatuta.

■ **Baliarrain / Villabona.** Tolosaldeko Mankomunitateak hasi duen *Birziklapen bira* Baliarrainen eta Villabonan izango da. Herriarrik birziklatzearen garrantziaz jabetzeko informazioa banatuko diete, eta baita gaierekin lotura duten produktuak ere. Villabonan, gainera, 19:00etan, tailerra izango da Alaitz Bilbaoren eskutik, euskaraz Mintzolan.

■ **Zizurkil.** Maiatza Saltsan egitasmoaren barruan, *Ipuin kontaketa solidarioa* izango dira ikasleen eskutik, Otaño ikastetxean.

**berriak 10 urte**  
zatoz gurekin ospatzera

**Maiatzak 17, Tolosa**

**Kontzertua Anje Duhalde**  
20:30ean · Leidor Aretoa